

# Juan Carlos Eguillorren izaera

'Bilbao la muerte. La obra gráfica de Juan Carlos Eguillor' liburuak berriro ekarriko du guregana artistaren itzala

JON KORTAZAR



Laster argitaratuko du Jose Carlos Torrek irudigilearen itzala aztertu duen liburua: 'Bilbao la muerte. La obra gráfica de Juan Carlos Eguillor'. Egileak lan handia egin du Eguillorren izaera gaurkotzeko eta bere ahaleginak berriro dakar guregana artistaren itzala.

**Gaurkotasuna eta oroimena**  
Nolakoa den artistaren geroa, gero! Gaurko egunek ez dute etorkizuna maite. Gaurkotasuna dugu begi bitartean eta uneen unekoa bizi beharrak ez du uzten etorkizunaren izpirik adierazten. Sormen-egileren bat hiltzen denean ahanzturaren arriskua datorkio.

Aditua eta ezaguna izateko etengabeko jardunean ibili ohi da egilea, urtero-urtero lan berriak eskainiz. Eta desagertu delarik, oroimenaren biziraupenak jarraipenik gabe geratzeko arriskua du. Gogoan dut Javier Marias idazleak esaten zuena, ez zuela maite biziraupena, ez zuela bere lanaren etorkizuna estimatzen, bizitzaren gaurkotasunak ematen ziola geroak baino esperantza handiagoa.

## Eguillorren ibilbidea

Eta badirudi horrela gertatu ohi dela, egilea hilez gero, ilundu egiten dela bere ospea. Uste dut patu gogorra izan duela gure garaian oso maite genuen Juan Carlos Eguillorrek. Mari Agirre-

ren historiak kontatu zituen EL CORREOn orrialde osoak erabiliz, garai hartarako oso berria zen komiki bidea berrituz. Bernardo Atxagarekin batera asmatu zuen 'Nikolasaren abenturen eta kalenturak' liburuaren irudiak. Eta Chuck Aranberri mutiko gaztearen joerak marraztu zituen. New Yorkera joan zen eta irudiak egiteko molde berriak asmatu zituen, gaurko bideoaren aurrekaria zen marrazketa sortuz. Bilboko lehen jaietako kartela zabaldu zuen, aho zabalik utziz gure sentipena.

Joan zitzaigun. Eta badirudi bere izaera urruntzen joan dela gizartearen memorian, nahiz eta noizbehinka gure oroimene-

ra ekarri hango edo hemengo ekitaldiren batek.

## Bilbo beti hizpide

Horregatik da hain garrantzizkoa Jose Carlos Torrek idatzi eta argitaratuko duen 'Bilbao la muerte. La obra gráfica de Juan Carlos Eguillor' eginkizuna.

Gure gaurko artikulua hau aurretiko berria da, oraindik berri ez den notizia. Baina ziur nago Juan Carlos Eguillorren bizitza eta lana jende gazteen artean zabaltzeko modua izango dela. Ez dut ahaztuko erabateko adiskideak utzi zituela artistak gure gizartean. Izan bada bere memoria gorde duten adiskide eta kolaboratzaileak: Bernardo Atxaga tartean. Bada 'El perro chico; Eguillor eta abar Kofradia' deituriko adiskide taldea. Bilboko Udalak ere ez du ahaztu, eta omenaldiak egin dizkio Aste Nagusiko kartela Arenalean kokatuz edo Plaza Berriko Posta kaleko sarreran mural ederra jarritz. Bilboko Arte Ederretako Museoak jaso zituen bere familiak emandako lanak eta toki berezia eskaini dio. Eguillor beti

izan da Bilboko paisaiaren sortzaile aparta. 'Bilbo amestuak' deitu zuen Bidebarrieta Kultur-guneak egin zion omenaldia. 'Bilbao Gloria Mundi' izendatu zuen 2021ean Torrek argitaraturiko liburua.

Jose Carlos Torrerren liburu horrek, baina, beste zerbait dakar. Eguillorren bideak aztertu ditu, bere nondik-norakoak. Bere historia osoa kontatu du Mari Agirre estonagarri eta surrealistarekin hasiz, Miss Martiartu estereotipo umoretsutik jarraituz, bere esperimentazio lanean bukatzeko.

Berritasun handia ikusi zuen New Yorkera egin zuen bidaian. Hiri nagusian egindako eguneroa utzi zigun. Eta han kontaktzen du Bostonera joan zela Colbert-Goicoa euskal sendiaren etxera. Han haur bat zegoen, David. Marrazki bat egin zion. Eta nola den mundua! Denborak aurrera egin du eta David Colbert-Goicoa euskal literaturan aditua da eta gure adiskide eta kolaboratzailea. Munduak jira egiten du eta pieza batzuk ondora datoz nola gertatu den jakin gabe.



## Eman hegoak euskarari



## Ezkutuko heroia

JON MARTIN-ETXEBESTE

Leinu garrantzitsu bateko kide da Ayumi iratxoa; profeziak dionez, bere esku dago urruneko erreinu bateko maldizioa etetea. Bera, ordea, mago eskasa da eta borrokalari are eskasagoa. Komiki samur honen bidaia inizatiko bat kontatzen du, entrenamendu fisiko eta psikologiko bat, munstro erraldoi bat umiltzeko helburua duena. Eskuzabalasunari, ausardiari eta elkarzaintzari buruzko istorio atsegin bat da, keinu umoretsuz bete. Ilustrazioen kalitatea apartekoa da. Jatorrizko lurralde pertsiarak eta abentura gertatzen deneko Japoniako paisaien irudikapenak zinez dira ederrak; zian, magenta eta horia oinarri duen paletaren aukeraketak argitasun handia ematen dio liburuari. Fantasiak beteta daude ilustrazioak: animalia eta barazki antropomorfoak ageri dira, eta zenbaitek badu Zaldieroaren

Balizko dorrearekin antzekotasunik.

Iazko komiki onenaren Antifaz saria jaso zuen Alvaro Ortizen 'Iratxo txikia eta shatranj partida' izeneko liburuak eta haren segida da honakoa. Istorioa aurreikusitako modukoa da helduen ikuspegitik, Propp-en funtzio klasikoekin pilaketa bat da: familiatik urruntzen den protagonista, profezia bat, heroiari garaitzeko behar duen objektu magikoa eskainiko dion pertsonaia, antagonistaren aurkako borroka; eta, korapiloa askatzeko, antagonistaren trangresioa eta erreparazioa. Informazioa testuan eta ilustrazioetan banatuta dagoenez irakurketa ahalegin gutxiagorekin deskodetzen dute irakurle gazteek. Haurren begiradatik (7 urtetik gorakoei zuzendurik dago) gozagarria da erabat. Oso litekeena da irakurleak protagonistaren zaugarritasunarekin eta naturaltasunarekin identifikatzea. Haren ahozko erregistroa jostaria da, helduenetik ezberdindua. Lan ona egin du itzultzaileak, nahiz eta sumatzen den jatorrizkotik itzulita direla elkarriketak (espazio mugatuetan bilduak) eta ez euskaraz sortutako zirtoak.

**'IRATXO TXIKIA ETA IBARREKO MUNSTROA'**  
Alvaro Ortiz.  
Astiberri. 2024.  
184 orr. 18,00 euro



## Kirola eta poza

ARANTXA URRETABIZKAIA



gande goiza zen, bederatziak ia eta gure etxearen inguruko kaleak hutsik zeuden. Itsasorantz egin nuen, oinez eta bidea gurutzatzen nindoala, bizikleta batzuk ikusi nituen ezkerretik. Gelditu nintzen eta, nire harridurarako, haien atzetik beste batzuk zetozen eta atzetik oraindik beste txirrindu batzuk. Denak txirrinduak jantziak, denak emakume gazteak, batzuk elkarrekin berrikeretan, algararen bat tarteka. Ez nituen zenbatu, baina dozenaka izango ziren, agian berrogeita hamar.

Bat-batean haiekin bat egiteko gogoa sumatu nuen eta azkena nire begi bistatik desagertu zenean atzetik poz eta kolorez betetako isatsa zintzilik utzi zutela iruditu zitzaidan. Gogoratu nuen nire

eskola garaian ez genuela neskok inoiz soinketa edo antzekorik egin. Inoiz ez, ezagutu nituen bi eskoletan. Ez soinketa ez kirola. Mutilen kontua zen hori, salbuespen gutxirekin.

Orain eta aspalditxotik ez dago kirola sustatuko ez duen eskolarik, ezta nesken tzat ere. Are gehiago, edertasunaren esparruan ere neska gehienek amesten dute gorputzean giharrak nabarrituko zaizkiela, beso gihartsuak nahi dituzte. Ez gehiegi, ordea. Ikusi besterik ez dago zer nolako besoak edo sabelak dituzten edertasunaren eredu omen diren emakume gazteak.

Joan ziren bizikletak eta berriz ere bidea gurutzatzen nindoala, azken emakume txirrinduak osatutako taldetxoari utzi behar izan nion bidea. Txaloka hasteko gogo nabaritu nuen, gero esango dute atzera egiten ari garela, pentsatu nuen. Une horretan ikusi nuen nire aldamenean adineko emakume bat zegoela, hirurogeita hamar urte gutxienez iruditu zitzaidan, eta eskutik lotuta txakur eder bat zeramala. Emakume horiek ez zuten etxean lanik, esan zuen ahots gora, haserre, agian bizikletak desagertzeko zain egon behar izan zuelako. Nik poza ikusi nuen lekuan alferkeria ikusi zuen berak. Ai, ene.

## SALDUENAK

### FIKZIOA

- Maitasun kapitala** Karmele Jaio. Elkar.
- Miñan** Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa.
- Izarrak eta haitzak** Karlos Aretxabaleta. Sua.
- Itsaso amiotikoa**. Oihane Jaka. Elkar.

### EZ FIKZIOA

- Euskaldun fededun** Pruden Gartzia. Elkar.
- Txikia biografia**. Iñaki Egaña. Txalaparta.
- Juana** Jon Artano. Elkar.
- Biziaroak herri kultura** Xamar. Pamiela.